

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4972

EBAZPENA, 2013ko urriaren 18koa, Heziketako eta Ikaskuntzako zuzendariarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko 2013-2014 ikasturteko proba-deialdia egiten duena.

Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetarako sarrera arautzen duen 2008ko apirilaren 13ko Aginduaren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestakuntza zikloetara sartzeko proba baterako deialdia egingo du, gutxienez urtean behin.

Horregatik, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdia.

Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloetan zuzenean sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleentzako sarbide-probak egiteko 2013-2014 ikasturteko deialdia egiten da.

Erdi-mailako 340 plaza eta goi-mailako 2.760 plaza betetzeko egiten da dei, dagoen aurrekontuaren arabera.

2. artikulua.– Onarpena lortzeko baremazio-irizpideak.

Eskaintzen den plaza-kopurua baino eskabide gehiago jasotzen bada, eskabideen baremazioa egingo da, honako irizpideei jarraituz:

– Helbidea edo bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izateagatik: 2 puntu.

Baldintza hori egiaztatzeko, NAn jasota dagoen helbidea hartuko da erreferentzia gisa. Helbide hori aldatu egin bada, inskripzioa egiterakoan egiaztatu beharko da aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztuta.

– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak heziketa-zikloetan sartzeko probatarako prestatzeko antolatu duen ikastaroan izena emanda egotea, aurtengo ikasturtean: 2 puntu.

Hezkuntza-administrazioaren ardura izango da datu horiek benetakoak direla egiaztatzea.

– Egindako probaren zatiren bat gaindituta izatea –proba egitetik salbuetsita egotea ez da kontuan hartzen– Euskal Autonomia Erkidegoan, eta zirkunstantzia hori nota gordetzeko epea indarrean dagoen denboran ematea (bi deialdi): puntu bat.

Hezkuntza-administrazioaren ardura izango da datu horiek benetakoak direla egiaztatzea.

Berdinketa badago, honako irizpide hauei jarraituz ebatziko da:

– Berdinketa hausteko lehenengo irizpidea eskatzailearen adina izango da; lehenetasuna izango dute gazteenek, jaiotza-urtea, -hilabetea eta -eguna aintzat hartuta.

– Berdinketa hausteko bigarren irizpide gisa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2013ko apirilaren 8ko Ebazpenak zehazten duen letra erabiliko da. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2013-2014 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan –baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere– alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra-zozketaren emaitza.

3. artikulua.– Inskripzioak eta informazioa.

1.– Proba hori egin ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan heziketa-zikloak ematen dituen ikastetxeren batean eman beharko dute izena, 2014ko urtarrilaren 13tik 22ra –biak barne– bitartean, Hezkuntza Sailak horretarako jarri duen aplikazio informatikoaren bitartez.

2.– Proba egiteko izena emateko unean ikusiko dira salbuespen-kasuak, hala badagokio, eta horiei buruzko agiriak eta baremazioa egiteko dagokion gainerako dokumentazioa aurkeztuko dira. Pertsona bakoitzak adieraziko du zein lurraldetan jaso nahi dituen jaso beharreko agiriak eta bere espedientea non artxibatzea nahi duen. Izenemate-aldia amaitu ondoren, ezin izango da egin probaren datuei eragiten dion aldaketarik.

3.– Otsailaren 12rako, ikastetxeak probarako onartutakoen behin betiko zerrendan agertzen diren ikasleen sarrera-probako dokumentazioa helaraziko dio Lanbide Heziketako dagokion lurralde-unitateari. Zerrenda hori, azterketa-eskubideak kobratu ondoren argitaratuko da.

4.– Izena emateko ikastetxeek eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek honako gai hauen inguruko informazioa emango diete interesatuei: sartzeko baldintzak, salbuespenen eskaera, probak noiz egingo diren, proben edukia, eta abar.

5.– Pertsona batek ezingo du sarrera-probatarako izena eman autonomia-erkidego baten baino gehiagotan, ikasturte berean. Baldintza hori ez betetzeak izen-ematearen baliogabetzea ekarriko du. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, I. eranskinean jasota dagoen adierazpena bete beharko da.

4. artikulua.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda.

Onartutakoen behin-behineko zerrenda –azterketa-eskubideak ordaindu aurrekoa– 2014ko urtarrilaren 24an argitaratuko da.

2014ko 27an eta 28an, azterketa-eskubideak ordaindu aurreko onartuen zerrendaren aurka egindako erreklamazioak aurkeztu ahalko dira, 6. artikuluan aipatzen diren ikastetxeetako idazkaritzan. Aldi horretan, ezin izango da baremoaren atalei buruzko agiri berririk erantsi.

Onartutakoen behin betiko zerrenda –azterketa-eskubideak ordaindu aurrekoa– 2014ko otsailaren 3an argitaratuko da, 6. artikuluan aipatzen diren tokietan.

Zerrenda horretan agertzen diren ikasle-gaiek azterketa-eskubideak ordaindu beharko dituzte sarrera-proba egiteko. Matrikula gauzatutzat joko da dagokion prezio publikoa ordaindu ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez egin ahalko da ordainketa. Kreditu-erakunde kolaboratzaileek lagunduko dute horretan.

Ordainketa-gutuna inskripzio-agirian datorren web (URL) helbidean lortu ahalko da, bertan idatzita dauden sarrera-gakoak erabiliz.

Azterketa-eskubideak ordaintzeko azken eguna 2014ko otsailaren 6a izango da.

Azterketa-eskubideak ordaindu ondoren, proba egiteko onartutakoen behin betiko zerrenda 2014ko otsailaren 10ean argitaratuko da.

5. artikulua.– Salbuespenak ebaztea.

Proba egiteko salbuespenen behin-behineko ebazpena 2014ko martxoaren 21ean argitaratuko da.

Martxoaren 24an eta 25ean egin ahalko dira salbuespenei buruzko ebazpenaren aurkako erreklamazioak, 6. artikuluan aipatzen diren ikastetxeetako idazkaritzetan. Era berean, salbuespenen behin-behineko zerrendan adierazitako agiriak osatu ahal izango dira.

Salbuespenen behin betiko zerrenda apirilaren 11ko 12:00etan argitaratuko da.

6. artikulua.– Non argitaratuko diren.

Ebazpen honen inguruko guztia honako ikastetxe hauetako iragarki-oholetan argitaratuko da:

Araba: Mendizabala GMLHI. Lasarteko errepidea z.g., Vitoria-Gasteiz.

Bizkaia: Emilio Campuzano BHI, Santos Juanes kalea 7, Bilbao.

Gipuzkoa: Easo GMLHI. Felipe IV etorbidea 1. Donostia.

Eta web orri hauetan: www.hezkuntza.net edo www.euskadi.net/fp-lh

7. artikulua.– Heziketa-zikloetan sartzeko izena eman duten ikasleek salbuesteko aurkeztu beharreko agiriak, baldin eta izena emateko orduan erdi-mailako zikloren edo hasierako lanbide kualifikazioko programaren batean matrikulatuta badaude.

2014ko ekainaren 2tik ekainaren 5eko 12:00etara bitartean, dagokion aldiaren heziketa-zikloetan sartzeko proban izena emanda duten ikasleek izena emanda badute erdi-mailako zikloren batean, edo hasierako lanbide-kualifikazioko programaren batean matrikulatuta badaude, eskatutako salbuespenei buruzko agiriak aurkeztu ahal izango dituzte proban izena emateko epean, betiere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2008ko apirilaren 13an emandako Aginduaren xedapen gehigarrietatik bigarrena betetzeko. Agindu horren bidez, Lanbide Heziketako heziketa zikloetan sartzeko modua arautzen da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko azaroaren 15eko Aginduak aldatu egin zuen agindu hori.

Dokumentazio hori 6. artikuluan aipatutako ikastetxeetako idazkaritzetan aurkeztu beharko dute Heziketa-zikloa edo HLPP Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikastetxeren batean ikasten duten ikasleek. Horretarako, II. eranskinean adierazten den eredia erabili beharko da.

Heziketa-zikloa edo HLPP Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeren batean ikasten duten ikasleen kasuan, zein ikastetxetan dauden matrikulatuta, ikastetxe horrek helaraziko dizkio datu horiek epaimahaiari, horretarako daukaten aplikazioaren bitartez Horretarako, ikastetxeak jakinarazpen bat jasoko du ikastetxeko helbide elektronikoko ofizialaren bitartez, eta bertan jakinaraziko zaio atal horrek eragindako ikasleak dituela.

Ekainaren 6ko 12:00etan argitaratuko da artikuluko honek aipatzen dituen ikasleen zerrenda, hain zuzen ere salbuetsita geratzen diren ikasleena.

8. artikulua.– Probak egitea.

1.– Egin beharreko proben egutegia:

ERDI MAILAKO HZ	GOI-MAILAKO HZ:	EGUNA/ORDUA
Soziolinguistika eta Matematika	Zati komuna	maiatzaren 8a, 16:00etan
Zientifiko teknikoa	Zati espezifikoa	ekainaren 9a, 16:00etan.

2.– Probak non egingo diren.

Azterketa-eskubideak ordaindu ondorengo onartutakoen behin betiko zerrendan zehazten den tokian egingo da proba.

Probak egingo diren ikastetxeetako zuzendaritzen ardura izango da tokiak antolatzea eta proben antolaketa ikuskatuko duten langileak nortzuk izango diren zehaztea.

Azterketak amaitu ondoren, epaimahairi helaraziko dizkio, zuzenketa egin dezan.

6. artikuluan aipatzen diren ikastetxeetako idazkaritzek zainduko dituzte probetako kalifikazio-aktak. Probei dagozkien gainerako agiriak, lurralde bakoitzari dagozkion ariketak barne, epaimahaiaren egoitzan gordeko dira zortzi hilabetez.

Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak egingo ditu prozesuaren gaineko ikuskaritza- eta aholkularitza-lanak.

9. artikulua.– Probaren emaitzak eta erreklamazioak.

Proben emaitzak 2014ko ekainaren 19ko 12:00etan argitaratuko dira. Aipatu unetik eta ekainaren 20ko 13:00ak arte erreklamazioak egiteko epea zabalik egongo da. Bestalde, erreklamazioak ebazpen honetako 6. artikuluan zehazten diren ikastetxeetako idazkaritzetan egin ahalko dira.

Erreklamazioen ebazpena 2014ko ekainaren 27ko 11:00etan argitaratuko da aipatu tokietan.

10. artikulua.– Proben ziurtagiriak.

Proba osoa gainditu duten ikasleek 2014ko ekainaren 19tik aurrera eskuratu ahal izango dituzte egiaztagiriak. Horretarako, eskabidean hautatutako lurraldeko ikastetxeko idazkaritzara jo behar dute, emaitzak han argitaratuko baitira. Proben zatiren bat bakarrik gainditu dutenek, berriz, ekainaren 27tik aurrera eskuratu ahal izango dituzte gainditutako zatiaren edo zatien egiaztagiriak.

11. artikulua.– Plazak gordetzea.

Sarrera-probatik datozen ikasleei prestakuntza-zikloko plaza guztietatik % 25 erreserbatuko zaizkie. Plaza horiek guztiak ezin badira bete probatik datozen ikasleekin, soberan direnak zuzenean sarrerakoei gehituko zaizkie.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Prozedura gaietan Agindu honetan arautu gabeko puntuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

2013ko azaroaren 15a, ostirala

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamu-
nean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 18a.

Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria,
RAMÓN MARÍA MARTÍNEZ DE MURGUÍA URRETA.

2013ko azaroaren 15a, ostirala

I. ERANSKINA

LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBAK
2013-2014 ikasturteko deialdia

.....
jaunak/andreak – NAN zk.: - lanbide-heziketako heziketa-
zikloetan sartzeko probetan eman du izena, eta
Interesdunaren izen-abizenak.

ZINPEAN EDO PROMESPEAN AITORTZEN DU:

Ikasturte honetan ez duela aldi berean izena emango beste hezkuntza-administrazio batek
deitutako Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko probetan.

....., 20.....koarena

Sin.:

2013ko azaroaren 15a, ostirala

II. ERANSKINA

Ziurtagiri-eredua, erdi mailako lanbide-zikloren bateko 2. mailan
matrikulatutako ikasleentzat

Izen-abizenak:

NAN:

.....

..... ikastetxeko idazkariak

Hau egiaztatzen du:

..... ikaslea –NAN zk.: –

..... heziketa-zikloko 2. mailan matrikulatuta dagoela;
heziketa-ziklo hori, berriz,, EDk arautzen du. Ikasle
horrek lanbide-modulu guztiak eta lantokiko prestakuntza gainditu ditu, eta
indarrean diren eskakizunak betetzen ditu titulu hau lortzeko:

.....

....., 20 -(e)ko rena.

Ontzat emana: zuzendariak

Idazkariak

Izptua.:

Izptua.:

2013ko azaroaren 15a, ostirala

Ziurtagiri-eredua, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programaren bateko 2. mailan matrikulatutako ikasleentzat

Izen-abizenak.....

NAN:

ikastetxeko/erakndeko idazkariak

Hau egiaztatzen du:

..... ikaslea –NAN:– matrikulatuta dagoela Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa honetako 2. mailan:, eta honen bidez arautzen dela programa hori (1):

(Bete dagokiona)

- Derrigorrez egin beharreko modulu guztiak gainditu ditu, eta lantokiko prestakuntza ere bai; beraz, indarrean diren eskakizunak betetzen ditu, programa hori gainditu duela egiaztatzen duen ziurtagiria lortzeko.

Lortutako batez besteko kalifikazioa:

- Borondatezko moduluetan kalifikazio hauek lortu ditu:

	Kalifikazio kualitatiboa	Kalifikazioa zenbakitan
Komunikazio-eremua		
Gizarte-eremua		
Zientzia- eta teknologia-eremua		

....., 20-(e)ko rena.

Ontzat emana: zuzendariak

Idazkariak

Izptua.:

Izptua.:

(1) adierazi zein arautegik arautzen duen programa hori